Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

| GETXOKO PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN 2013ko UZTAILAREN 18K0 BATZARRAREN AKTA.<br><br>BILDUTAKOAK: | ACTA DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO DE GETXO CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 18 DE JULIO DE 2.013.<br><br>SEÑORES ASISTENTES: |
|---|---|
| **PRESIDENTEA: /PRESIDENTE:** | |
| IMANOL LANDA JAUREGI jauna | |
| **PRESIDENTEORDEAK: /VICEPRESIDENTES:** | |
| JOSEBA ARREGI MARTINEZ jauna<br>KELTSE EIGUREN ALBERDI andrea | |
| **BATZARKIDEAK: /VOCALES:** | |
| AITOR VEGUILLAS VALENCIANO jauna (PSE-EE)<br>CHRISTIAN REINICKE URRUTIKOETXEA jauna (BILDU)<br>IGNACIO GAMERO DELGADO jauna (PP)<br>Aitor Pineda ~~UNAI MEZO MEZO~~ jauna (EAJ-PNV)<br>JESUS URRUTIA OLEAGA jauna (ANDRA MARI GURE LURRA)<br>CESAR CHARRO RODRIGUEZ jauna (UGT)<br>JAVIER CASTILLO RAMIREZ jauna (GEYC-GEEM)<br>JOSE RAMON ESPARZA GOICOECHEA jauna (ASOCIACION URIBE-COSTA)<br>IÑIGO ERDOZAIN GONZÁLEZ jauna (KOSMOPOLIS, ASOCIACION P.R.C.)<br>ROSA Mª ORTIZ PEREIRO andrea (CLUB REMO RASPAS)<br>Mª ROSARIO DE LA PEÑA LUQUE andrea (ENCLAVE DE CIUDADANAS DE GETXO)<br>ARANTZA ARANAGA RODRIGUEZ andrea (ENCLAVE DE CIUDADANAS DE GETXO) | |
| **IDAZKARIA: /SECRETARIA:** | |
| ISABEL PERAL AGUIRREGOITIA andrea | |

Udal Bulego Teknikoko bileren aretoan, "Santa Clara" lursailean, 2013ko uztailaren 18ko 17:30ean, Getxoko Udal Plangintzarako Aholku Kontseilu gisa goiburuan aipatutakoak bildu dira, aurretiko deialdiaren gai-zerrendako gaiak aztertzeko. De la Peña andreak entzule gisa jardun du.

En la sala de reuniones de la Oficina Técnica Municipal, finca "Santa Clara", siendo las 17:30 horas del día 18 de Julio de 2.013, se reúnen las personas relacionadas al encabezamiento, como miembros del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Getxo, para tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la previa convocatoria. La Sra. de la Peña actúa de oyente.

Era berean, Argiñe Encinas Cano andrea (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Errebisatzeko Bulegoko Arkitektoa), eta Antón Agirregoitia Aretxabaleta jauna

Acuden, igualmente, Dña. Argiñe Encinas Cano, Arquitecta de la Oficina para la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana, y D. Antón Agirregoitia

ere (Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Idazle Taldeko Arkitektoa) bildu dira.

Ondoren, Gai-zerrendak barne hartutako gaiei heldu zaie, honako emaitzarekin:

**1.- 2013KO EKAINAREN 27AN EGINDAKO BATZARRAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA, HALA BADAGOKIO.**

13.06.27ko bilerako akta onetsi da. Horren aurretik, Reinicke jaunak adierazi du bere ustez beharrezkoa dela akta horretan jasotzea berrikuspenetik ateratzen den plan orokorrean jaso behar dela gaur egun mugatuta dagoen lurzoru urbanizagarria berriz kontuan hartzeko aukera, baita egon dauden eta Anton Agirregoitiak zehaztutako eraikinen araubide juridikoa ere, azkenean plangintzan ezartzen dena kontuan hartuta, arlo horretako legezko xedapenei aipamen eginez.

**2.- GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO BERRIKUSKETA PROZESUAREN BARRUAN EGINDAKO "AURRETIKO AZTERKETAK" BURUZKO TXOSTENA**

GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENERAKO abiatutako espedientea ikusi da.
GERTAERA.- GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO prozesua abiatuta eta HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA onetsita, GETXOKO UDAL

Aretxabaleta, Arquitecto del Equipo Redactor de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana.

Se abordan a continuación los asuntos incluidos en el Orden del Día, con el siguiente resultado:

**1.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL 27 DE JUNIO DE 2.013.**

Fue aprobada el Acta correspondiente a la sesión de 27.06.13, tras la intervención del Sr. Reinicke manifestando entender necesario que dicha Acta recogiera la posibilidad de que el Plan General resultante de la revisión reconsiderara el suelo urbanizable actualmente delimitado, así como el régimen jurídico de las edificaciones existentes, que, Anton Agirregoitia concretó, a salvo lo que finalmente determinara el planeamiento, refiriéndose a las determinaciones legales en la materia.

**2.- INFORME EN RELACIÓN CON LOS "ESTUDIOS PREVIOS" REALIZADOS DENTRO DEL PROCESO DE REVISION DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO**

Visto expediente incoado para la REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO; y,

RESULTANDO.- Que, iniciado el proceso de REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO y aprobado el PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA, se

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

Euskadi 2006

PLANGINTZARAKO AHOLKU KONTSEILUA berritu da Alkatetza-Lehendakaritzaren 1.478/2013 Dekretuaren bidez.

GERTAERA.- GETXOKO UDAL PLANGINTZARAKO AHOLKU KONTSEILUAREN partaidetza argi eta garbi areagotu da araudian ezarritakoarekin alderatuz gero, GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO prozesuaren barruan, HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMATIK ondorioztatzen den moduan.

GERTAERA.- Parte-hartze hori hasierako faseetatik hasi da, AURRETIKO AZTERKETAK egin ondoren (Lurralde Antolamendurako Tresnen Analisia eta Etxebizitzaren Erabileraren Analisia) eta Lantaldeak parte hartu ostean;

GERTAERA.- Modu horretan, Lantaldearen lana amaitu ondoren, Getxoko Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluari dei egin zitzaion ekainaren 27ko bileran parte hartzeko. Bilera horretan, "aurretiazko azterketak" eta Lantaldearen ondorioak azaldu zituzten.

GERTAERA.- Getxoko Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluari deialdia egin zaio berriro Lurralde Antolamendurako Tresnen analisiaren eta Etxebizitzaren Erabileraren Analisiaren edukiei lotuta txostena egiteko.

KONTUAN HARTUTA.- Getxoko Udal Plangintzarako Aholku Kontseilua

procede a la renovación del CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE GETXO, renovación que se aprueba por Alcaldía-Presidencia nº 1.478/2.013.

RESULTANDO.- Que, la participación del CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE GETXO se ve claramente intensificada, respecto de la prevista en su Reglamento Regulador, dentro del proceso de REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO, tal y como resulta del PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA.

RESULTANDO.- Que, dicha participación empieza desde las fases iniciales, una vez realizados los ESTUDIOS PREVIOS (Análisis de los Instrumentos de Ordenación del Territorio y Análisis del Uso de la Vivienda) y tras la intervención del Lantalde; y,

RESULTANDO.- Que, así, una vez finalizado el trabajo del Lantalde, el Consejo Asesor de Planeamiento de Getxo es convocado para la reunión que se celebra el 27 de Junio, reunión en la quedan expuestos tanto los contenidos de los "Estudios Previos", como las conclusiones del Lantalde.

RESULTANDO.- Que, el Consejo Asesor de Planeamiento de Getxo ha sido convocado a una nueva reunión para la emisión del informe en relación con el contenido del Análisis de los Instrumentos de Ordenación del Territorio y Análisis del Uso de la Vivienda.

CONSIDERANDO.- Que, el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal es un

aholkurako eta eztabaidarako organo lokal bat da, hirigintza-planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedurari dagokionez kontzertazio sozialerako funtzioak beteko dituena. Nahitaez eratu beharko da plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena, berez edo eskuordetzan emanda, duten udalerrietan (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109.1 art.).

KONTUAN HARTUTA.- Getxo udalerriko Hiri Antolamenduko Aholku Batzordea Udalaren eta gizarte, ekonomi eta ingurumen eragileen informazio, eztabaida eta adostasun espazioa izango da, hiri plangintzari dagokionez. Hiri Plangintzako Aholku Batzordea Getxoko Udalak parte hartzeko duen organo osagarria da. Beraren helburua da herritarrek, oro har, eta herritar kolektibo eta elkarteek, zehazki, ekarpenak egin ahal izatea udalerriko gobernu organoen erabakiak hartzean. (Getxoko udal plangintzako aholku batzordea arautzen duen udal araudiaren 1. art.)

KONTUAN HARTUTA.- Udalak aurkezten dizkion egiturazko hiri antolamenduko zehaztapen guztietan (ofizioz eginak nahiz alderdi batek eskatuak) kontsulta, txostenak eta proposamenak egitea da Hiri Plangintzako Aholku Batzordearen eginkizuna (4.1 art.). Horrez gain, GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPEN prozesuan parte-hartze aipagarria izango du, HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMATIK ondorioztatzen den moduan.

órgano local de carácter consultivo y deliberante para el cumplimiento de las funciones de concertación social en relación con el procedimiento de formulación, tramitación y aprobación de los planes urbanísticos, de existencia obligatoria en los municipios que tengan la competencia, propia o delegada, para la aprobación definitiva de planes generales (Art. 109.1 de la LEY 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo).

CONSIDERANDO.- Que, el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo se constituye como espacio de información, debate, consenso del Ayuntamiento, de los agentes sociales, económicos y ambientales al planeamiento urbanístico. Es un órgano complementario de participación del Ayuntamiento de Getxo con la finalidad de que la ciudadanía en general y las Asociaciones y Colectivos Ciudadanos puedan cooperar a la conformación de las decisiones de los Órganos de Gobierno del Municipio. (Art. 1 del Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo)

CONSIDERANDO.- Que, el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico tendrá como objeto la consulta, el informe y la propuesta en relación con cualquiera de las determinaciones de ordenación estructural urbanística sometidas a consideración por parte del Ayuntamiento formuladas bien de oficio bien a instancia de parte (Art. 4.1), sin perjuicio de su destacada participación en el proceso de REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO, tal y como resulta del PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA.

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

KONTUAN HARTUTA.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAN ezarri da Hiri Antolamenduko Aholku Batzordeari kontsulta egingo zaiola "Aurretiko Azterketei" buruz:

"Lantaldeak Aldez Aurreko Azterlanei dagokien lana amaitu ondoren, Udalak Getxoko Udal-plangintzako Aholku-batzordeari deialdia egingo dio aipatutako informazioa entregatzeko eta idazketa-taldeari eskatuko dio Batzordeari azal diezaiola Aurrerakinaren Atarikoa idazteko lagungarriak izango diren aldez aurreko azterlanei buruzko edukia, Lantaldearekin burututako bi lan-saioetatik eratorritako ondorioak barne.
Lanen azalpena egin ondoren, Aholku-batzordeari dagokion txostena egitea eskatuko zaio, lurralde antolamenduko planen analisiaren edukiari, etorkizuneko plan orokorrean izango duen eraginari eta ingurumenean eta udal mugarteko etxebizitza erabileran izango dituen eraginei dagokienez; txosten hori, hamabost eguneko epearen barruan entregatu beharko da."

CONSIDERANDO.- Que, el PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA prevé la consulta al Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico sobre "Estudios Previos":

"Una vez finalizado el trabajo del Lantalde en relación con los Estudios Previos, el Ayuntamiento convocará al Consejo Asesor de Planeamiento de Getxo, entregando dicha información y comprometiendo al equipo redactor para que exponga al Consejo el contenido de los estudios previos que ayudarán a la redacción del Preavance, incluyendo las conclusiones que se deriven de las dos sesiones de trabajo realizadas con el Lantalde.
Realizada la exposición de los trabajos, se solicitará la emisión del informe correspondiente del Consejo Asesor de Planeamiento en relación con el contenido del análisis de los planes de ordenación del territorio, su afección al futuro plan general y de sus afecciones medio ambientales y el uso de la vivienda en el término municipal; el cual será entregado en un plazo no superior a quince días".

IKUSITA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea; Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea; Getxoko Udal Plangintzako Aholku Batzordea arautzen duen udal araudia; GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPEN

VISTOS.- Ley 7/85, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo; Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo; PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA vinculado al proceso de REVISIÓN DEL PLAN

prozesuari lotutako HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA, eta horrekin bat datorren gainerako legeria.
Getxoko Udal Plangintzako Aholku Batzordeak hau onartu du

ERABAKIA:

LEHENENGOA.- GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA idazten duen taldeak egindako "AURRETIKO AZTERKETAK" (Lurralde Antolamendurako Tresnen Analisia eta Etxebizitzaren Erabileraren Analisia) jakinaraztea, modu honetan:

**1.- Lurralde-antolamendurako planen analisiaren edukia, etorkizuneko plan orokorrean duen eragina eta ingurumenean duen eragina:**

**Ortíz andrearen** ustez, babesa behar den bestekoa da, baina Galeako Golfaren barruan zuhaizti bat babestea komeni dela uste du.

Kultura-ondare moduan babestutako eraikin eta osagaien zerrenda berrikusi du, eta zerrenda egokitzat jo du.

**Veguillas jaunaren** ustez, babesa oro har egokia da, baina beste osagai batzuk babestuta egon beharko lirateke.

Adibidez, kostaldea babestu beharko litzatekeela uste du, labarrak baino gehiago, eta bere ustez, espazio libreen kalifikazioa bat etor daiteke babesarekin.

Azkorriko errepidea babestu beharreko

GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO y demás legislación concordante

El Consejo Asesor del Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo adopta el siguiente

ACUERDO:

PRIMERO.- Informar los "ESTUDIOS PREVIOS" (Análisis de los Instrumentos de Ordenación del Territorio y Análisis del Uso de la Vivienda) realizados por el Equipo Redactor de la REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO en los siguientes términos:

**1.- Contenido del análisis de los planes de ordenación del territorio, su afección al futuro plan general y de sus afecciones medio ambientales:**

La **Sra. Ortíz** considera suficiente la protección, aunque aprecia una zona de arbolado dentro del Golf de la Galea que merecería protección.

Ha revisado el listado de edificios y elementos protegidos como patrimonio cultural y estima correcto tal listado.

El **Sr. Veguillas** considera que la protección es suficiente con caráter general, pero que existen elementos que merecerían incorporarse a la protección.

Así, menciona la zona de costa como elemento a proteger, más allá de lo que son los acantilados, y entiende que la calificación de espacios libres puede concordar con su protección.

Señala la carretera de Azkorri como

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Euskadi 2006

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

espazioen eta garapen objektu izan daitezkeenen arteko balizko muga dela adierazi du.

posible límite entre los espacios a preservar y los que pudieran ser objeto de desarrollo.

Bere ustez, beharrezkoa da uholdeak izateko arriskua duten aldeak bereziki kontuan hartzea, etxebizitzek kalterik izan ez dezaten, ez bakarrik uholdeak izateko arriskuarengatik, baita osasungaitza izan daitekeelako ere.

Entiende preciso atender de manera especial las zonas inundables, para evitar viviendas que puedan verse afectadas, no solamente por cuestiones de inundabilidad, sino también de insalubridad.

Eraikin eta osagai babestuen katalogoa osatua dela uste du.

El catálogo de edificios y elementos protegidos lo considera completo.

**Gamero jaunak** nabarmendu egin nahi du Kontseiluko zein Lantaldeko parte-hartzaileen ahalegina, eta eskerrak eman dizkie. Hurrengo kideari hitza eman dio, Udaleko talde popularrak aurrerago hitz egiteko aukera izango duela pentsatzen duelako.

El **Sr. Gamero** quiere dejar constancia del esfuerzo de los participantes en este Consejo, así como en el Lantalde, a quienes expresa su agradecimiento, y da paso al siguiente vocal, entendiendo que el Grupo Municipal Popular tendrá ocasión de pronunciarse más adelante.

**Urrutia jaunak** Andra Marik merezi duen babesa azpimarratu du eta bioaniztasunak eta ekosistemek irauteko duten beharra nabarmendu du, aurkeztu dituen idazkietan azaldutakoaren ildotik, baita egon dauden etxeen inguruari dagokionez ere.

El **Sr. Urrutia** incide en la protección que merece Andra Mari y destaca la necesidad de supervivencia de la biodiversidad y los ecosistemas, en línea con lo expresado en los escritos que ha presentado, también en lo que se refiere al entorno de las casas existentes.

Kultura-babesa izan beharko luketen osagaiei eta eraikinei dagokienez, Lantaldeak adierazitakoak aipatu ditu: Barinatxeko dunak, Bola hondartza, Getxoko Abra, Azkorriko kostako korridorea, Baserriko harana, Galeako labarrak, Aiboako zuhaiztiak, Gobelaren etorkizuneko ibilgua, garbitegiak, Nagusien Etxea, Romoko euskaltegia, herriko frontoia eta plazako kioskoa.

Respecto a los elementos y edificios dignos de protección cultural, relaciona los señalados por el Lantalde: Dunas de Barinatxe, Playa de La Bola, Abra de Getxo, Corredor Costero de Azkorri, Valle del Baserri, Acantilados de La Galea, Bosquetes de Aiboa, futuro cauce del Gobela, molinos de agua, lavaderos, Nagusien Etxea, Euskaltegi de Romo, frontón del pueblo y kiosko de la plaza.

**Charro jaunaren** ustez, beharrezkoa da mugak eta lortu nahi diren helburuak argi eta garbi zehaztea jardunak finkatu aurretik. Jardun

El **Sr. Charro** ve necesario establecer claramente los límites y metas que se quieren alcanzar antes de concretar las actuaciones, que habrán de coinciliar los

horien bidez, jokoan dauden interesak uztartu beharko dira. Modu horretan, bere ustez, beharrezkoa da gaiak ikuspuntu orokorretik jorratzea, gero arlo zehatzera igarotzeko. Hori dela eta, bere ustez printzipioz babesa egokia den arren, mugak ezagutzen ez dituenez, ezin du baloratu gutxiegi edo gehiegi den.

**Aranaga andrearen** ustez, beharrezkoa da uholdea izateko arriskua duten inguruen babesa bermatzea.

Etxebizitza-hazkundea dela-eta inguru horiek zabaldu beharko direla uste du.

Lantaldearen parte-hartzearen emaitza den "Memoria" izeneko dokumentuari helduz, eta "Andra Mari" aipamenak inguruari buruzkoak eta ez Elkarteari buruzkoak direla argitu ondoren, harrituta agertu da Nagusien Etxea eta Romoko Euskaltegia eraikinak babestuko direlako, eta babes horretarako irizpideak zein diren ez dakiela dio. Azaldu diotenez, arrazoiak ezinbestean ez dira izan behar eraikinaren balio arkitektonikoak, historikoak, eta abar izan daitezke.

**Erdozain jaunaren** ustez, kostako ingurua, Galea eta Sopela bitartean, guztiz babestuta egon behar da, paisaia-balio handiko ingurua den aldetik. Veguillas jaunarekin bat dator Azkorriko errepidea guztiz babestuta dagoen inguruaren eta urbanizatu eta zabaldu daitekeen inguruaren arteko muga izan daitekeela esatean. Zabalkundearen puntu horretan, bi aukera ditu, bata bestea baino murriztaileagoa.

Eraikinen eta osagaien kultura-babesari dagokionez, bere ustez

distintos intereses en juego. Así, entiende necesario abordar los asuntos desde un punto de vista global, para luego descender a lo concreto. Por ello, aunque considera que en principio la protección es correcta, desconociendo los límites, no puede evaluar si es insuficiente o excesiva.

La **Sra. Aranaga** estima necesario asegurar la protección de las zonas inundables.

Considera que el crecimiento residencial obligará a expandirse.

Rescata el documento denominado "Memoria" resultado de la participación del Lantalde y, tras recibir aclaraciones acerca de que las referencias a "Andra Mari" lo eran a la zona y no a la Asociación, manifiesta su extrañeza ante la propuesta de que sean protegidos los edificios Nagusien Etxea y Euskaltegi de Romo y dice desconocer cuáles son los criterios de protección. Se le explica que no tienen que ser necesariamente los valores arquitectónicos del edificio en cuestión, sino que pueden ser históricos, etc...

El **Sr. Erdozain** estima que la zona costera, entre La Galea y Sopelana, ha de estar totalmente protegida, como zona de alto valor paisajístico. Coincide con el Sr. Veguillas en que la carretera de Azkorri puede ser el límite entre lo totalmente protegido y lo susceptible de urbanización y ampliación. En este punto de la ampliación, maneja dos opciones, una más restrictiva que la otra.

En cuanto a la protección cultural de edificios y elementos, señala que la protección no puede convertirse en

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

babesa ezin da izan oztopoa etxebizitzak gaur egungo erosotasun mailetara egokitzeko lanak egiteko, eta etxebizitzen kontserbazio lanak egiteko (adibidez, Punta Begoñako galeriak).

**Esparza jaunaren** ustez, beharrezkoa da kostako ingurua babestea barrabaskeriak saihesteko.

Bere ustez, eraikinak eta osagaiak gehiegi babesteak esku-hartzeko aukera guztiak deuseztatu eta hondamendira eramaten ditu.

**Reinicke jaunak** adierazi du kostako ingurua babestu egin behar dela, eta Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren hasierako bertsioa berreskuratzea iradoki du, babesteko esparruari dagokionez arranditsuagoa baita.
Era berean, bere ustez babesteko modukoak dira Gobelaren arroa eta errekastoak (adibidez, Kandelu) eta horien iturri nagusia (adibidez, Kandelurena Galeako futbol-zelaietan dago. Leku horretan, garbitegi zahar bat dago, eta hori ere babestu egin beharko litzateke).
Bere ustez, uholdea izateko arriskua duen ingurua ere babestu beharko litzateke, fluxu hidraulikoen kontrolerako egiten diren lanez harago.
Kultura-babesa izan beharko luketen eraikin eta osagaien artean, aipatutako garbitegiaz gain, Malakateak eta horiek barruan hartzen dituen saneamendu-sistema aipatu ditu.

**2.- Lizentziak eta etxebizitzaren erabilera udal barrutian:**

**Ortíz andrearen** ustez, etxebizitzaren

obstáculo para acometer obras que permitan el acomodo de las viviendas a los niveles de confort actuales, ni tampoco para su conservación (por ejemplo, Las Galerías de Punta Begoña).

El **Sr. Esparza** ve necesaria la protección de la zona costera para evitar desaguisados.

Entiende que la protección excesiva de edificios y elementos anula cualquier posibilidad de intervención y los condena a su ruina.

El **Sr. Reinicke** destaca la zona costera como zona a proteger y sugiere la recuperación de la versión inicial del Plan Territorial Sectorial de Protección del Litoral, más ambicioso en cuanto al ámbito digno de protección.

Estima igualmente protegibles la cuenca del Gobela y los arroyos (por ejemplo, Kandelu) y su fuente principal (por ejemplo, la del Kandelu estaría en los campos de fútbol del Galea, donde se encuentra un antiguo lavadero que también debería protegerse).

También entiende que debe protegerse la zona inundable, más allá de las obras que se hagan para el control de los flujos hidráulicos.

Entre los edificios y elementos a proteger culturalmente cita, junto con el lavadero ya señalado, los Malakates y el sistema de saneamiento del que forman parte.

**2.- Licencias y Uso de la vivienda en el término municipal:**

La **Sra. Ortíz** considera que el precio de

prezioa gehiegizkoa izan da, eta horren ondorioz, Getxoko biztanle asko beste udalerri batzuetara joan behar izan dira.
**Veguillas jaunaren** ustez, zenbait arazo egon dira indarreko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak mugatutako betearazpen-unitate batzuk kudeatzeko. Arazo horiek behar den moduan identifikatu beharko dira erabakiak hartu ahal izateko.

Bere ustez ere, pertsona batzuek udalerritik kanpo bilatu behar izan dute etxebizitza, baina berak pentsatzen du horri aurre egiteko Plan Orokorra beste erreminta bat dela, ez bakarra.

**Urrutia jaunaren** arabera, prezioa dela-eta etxebizitza beste udalerri batzuetan bilatu behar izan dute batzuek. Bere ustez, etxebizitzaren edukitza-araubidea alokairua izan beharko litzateke, eta okupazioa eragin duten baldintzak berrikusi beharko lirateke. Etxebizitza tasatuari dagokionez, kontua ez dauka argi eta bere ustez oso zorrotzak izan behar dira. Etxebizitzak eskaeretara egokitzea iradoki du. Bere ustez, ez da egokia legeak udalerri guztiak berdin hartzea etxebizitza babestuaren estandarrari dagokionez, ezaugarriak eta beharrizanak kontuan hartu gabe. Bere ustez, etxebizitza libreek funtsezko eginkizuna dute hirigintza-proiektuen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko.

**Aranaga andreak** iradoki du EINen inkestaren eta Eusko Jaurlaritzaren datuen arteko aldearen arrazoia kontuan hartutako urteak desberdinak izatea izan daitekeela.

la vivienda ha sido excesivo y motivo de que muchos getxotarras hayan tenido que irse a otros municipios.

El **Sr. Veguillas** aprecia que ha habido ciertos problemas para la gestión de ciertas unidades de ejecución delimitadas por el vigente Plan General de Ordenación Urbana, problemas que habrá que identificar correctamente en orden a tomar decisiones.

Coincide en que ha habido gente que ha tenido que buscar vivienda fuera del municipio, pero cree que el Plan General es una herramienta más y no la única para acometer esta cuestión.

El **Sr. Urrutia** percibe que el precio ha obligado a buscar vivienda en otros municipios. Es partidario de que el régimen de tenencia de la vivienda protegida lo sea en alquiler, y con revisión de las condiciones que han motivado su ocupación. Respecto a la vivienda tasada manifiesta sus reservas y entiende que es necesario ser muy rigurosos. Sugiere que las viviendas se adapten tipológicamente a las demandas. Señala lo inconveniente de que la Ley trate por igual a todos los municipios, en cuanto al estándar de vivienda protegida se refiere, sin tener en cuenta sus características y necesidades propias. Considera que las viviendas libres juegan un papel fundamental para garantizar la viabilidad económica de los proyectos urbanísticos.

La **Sra. Aranaga** sugiere que la diferencia de datos derivados de la encuesta del INE y del Gobierno Vasco puede deberse a que los años considerados son distintos.

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

**Erdozain jaunaren** ustez, etxebizitzaren prezioa garestia da eta hedatzea hautatuz gero, dentsitate ertain-handia hartu beharko litzateke kontuan, ez txikia, eta alokairuko gizarte-etxebizitza sustatu.

**Esparza jaunaren** arabera, kontuan izan behar da inguru berdeen azalera handiek etxebizitzaren prezioan duten eragina. Bere ustez, etxebizitza-azterketak desfasatuta daude eta gizarte-alokairuko etxebizitzaren aldeko apustua egiten du. Modu negatiboan baloratzen du lonjak etxebizitza bihurtzeko aukera, horrela dendak kentzen dira eta.

**Reinicke jaunaren** ustez, Getxok ez du zertan gehiago hazi. Gaur egun mugatuta dagoen hiri-lurzoruak udalerriko beharrizanei aurre egin ahal die. Hiri-antolamenduko Plan Orokorra beste tresna bat dela adierazi du, baina ez bakarra. Udaleko eguneroko kudeaketa ere hor dago, plangintzaren araberakoa ez dena, baita udal ondarea eta etxebizitzaren arazoari aplikatu ahal zaizkion berezko baliabideak ere.

**3.- Beste gai batzuk:**

**Castillo jaunaren** ustez, beharrezkoa da auzoen eta inguruen arteko kohesioa bermatzea udalerriaren ekonomiaren motorrari eragiteko. Merkataritzaren eginkizun garrantzitsua nabarmendu du, kohesio eta dinamizazio osagai moduan, eta merkataritza sustatu behar dela azpimarratu du.

**Erdozain jaunaren** arabera, beharrezkoa da Getxo udalerriak, 20.000 biztanletik gora izanda, aterperik gabeko pertsonentzako

El **Sr. Erdozain** estima que el precio de la vivienda es caro y que a la hora de expandirse habría que considerar la media-alta densidad, nunca la baja, y potenciar la vivienda social en alquiler.

El **Sr. Esparza** estima que debe tenerse en cuenta la incidencia de grandes superficies de zonas verdes sobre el precio de la vivienda. Considera que los estudios de vivienda están desfasados y apuesta por la vivienda de alquiler social. Valora negativamente la posibilidad de conversión de lonjas en vivienda porque eliminan el comercio.

El **Sr. Reinicke** entiende que Getxo no tiene por qué crecer más. El suelo urbano actualmente delimitado tiene potencialidad suficiente para atender las necesidades del municipio. Señala que el Plan General de Ordenación Urbana es una herramienta más, pero no la única. También está la gestión diaria municipal, que no depende del planeamiento, el Patrimonio Municipal y los recursos propios que pueden aplicarse a la problemática de la vivienda.

**3.- Otras cuestiones:**

El **Sr. Castillo** aprecia la necesidad de garantizar la cohesión entre los distintos barrios y zonas para motorizar económicamente el municipio. Destaca el importante papel del comercio como elemento de cohesión y dinamización, que es necesario potenciar.

El **Sr. Erdozain** apunta la necesidad de que un municipio como el de Getxo, con más de 20.000 habitantes, cuente con un albergue para personas sin techo.

SEGUNDO.- Incorporar este informe al

aterpetxea izatea.
BIGARRENA.- Txosten hau GETXO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPEN espedientera gehitzea, jarduketak jarraitzeko.

**3.- GALDERETARAKO ETA AZALPENETARAKO TXANDA.**

Batzarrean galderak egin eta azalpenak eman dira, eta beraz, txanda honetan ez da galderarik ez azalpenik egon.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, lehendakariak batzarra bukatutzat eman du 19:02an.

expediente de REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO para la continuación de las actuaciones.

**3.- TURNO DE PREGUNTAS Y ACLARACIONES.**

Habiéndose realizado preguntas y aclaraciones a lo largo de la sesión, no se hicieron en esta ocasión.

Sin más asuntos que tratar, por orden de la Presidencia se dio por finalizada la sesión siendo las 19:02 horas.

GETXOKO PLANEAMENDUKO AHOLKULARITZA KONTSEILUKO PRESIDENTEA/EL PRESIDENTE DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO

GETXOKO PLANEAMENDUKO AHOLKULARITZA KONTSEILUKO IDAZKARIA/LA SECRETARIA DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO